

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Aste honetan eratuko dira 2016an II. Gazteria Plana idazteko mahai teknikoak

Langile teknikoek osatzen dute eta bertan herritar gazteek beren bizi-garapeneko alor guztietan dituzten beharrak jorratuko dituzte

Lunes, 22 de febrero de 2016

Aste honetan eratuko dira Nafarroako II. Gazteria Planaren helburu nahiz ekintzak erabakiko dituzten hamar mahai teknikoak, 2016. urtean egingo dena, hurrengo hiru urteetan abian jartze aldera (2017tik 2019ra).

Mahai bakoitzean, hura osatzen duten langile teknikoak, arlo zehatzen arabera gazteriaren behar nahiz arazoei berariazko erantzun koordinatua ematen saiatuko dira.

Eskura dauden datu kuantitatibo eta kualitatiboekin, egoeraren diagnostiko bat egingo du, eta Nafarroako Gobernu departamentuei proposamenak egingo dizkie.

Gazteriaren II. Foru Planaren idazketak ikuspegi hirukoitza du: plan integral bat, gazteari unitate modura arreta emango diona; unibertsal, gazte guztiak salbuespenik gabe hartuko dituena; eta zeharkakoa, eragiten dieten bizi-garapen, gai eta arazoen alor guztietan.

Astelehen honetan, Enplegu eta Gizarteratze nahiz Aniztasuneko mahai teknikoak bildu dira estreinakoz. Aste honetan ere beren jarduerari helduko diote Kultura, Hezkuntza, Partaidetza, Etxebizitza, Osasun, Lurralde Garapen, Berdintasun eta Kiroletakoak.

Mahai bakoitza zortzi lagunek osatuko dute, honako hauen artean: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko langile teknikoak; Nafarroako Gazteria Kontseiluko ordezkariak; udaletako gazteriako langile teknikoak; Gobernu departamentuetako teknikariak; gazteen erakunde, elkarte eta taldeak; eta mahaiak gonbidatuta, gazte-arloan adituak diren pertsonak.

Gazteen partaidetza

Plana egiteko prozesuak ere gazteen partaidetza jasotzen du beste metodologia eta tresna batzuen bitartez: inkestak, eztabaidarako taldeak,



Gazteriako zuzendariorde Adela Gonzalez Gizarteratze eta Aniztasun mahaiaren eraketan izan da.

Gazteriako Zuzendariordearen webgune bidezko foro edo ekarpenak.

Martxoan hasiko da talde horren iritzia jasotzen, adin-taldeetan banatuta (14-17 urte, 18-24 eta 25-30). Zuzendariordeak haren laguntza eskatuko du dauden mugarrak aktibatzen direnean.

Emaizak ondoren mahaietan aztertuko dira. Planaren zirriborroa prest dagoenean parte hartu ahalko dute berriro gazteen aktiboki, eskualde-mailako foroen bitartez.